


# ZARR

**BIZKAITARRAI  
BIZKAIERAZ  
15 n. ZENBAKIA  
ZEMENDIA  
-1978-**



**II JON PAUL  
AITA SANTU BARRIE  
BIDE BARRIAK?**



# 70 urte Bizkaiari laguntzen



**CAJA DE AHORROS**   
**MUNICIPAL DE BILBAO**  
ONDO ERANTZUTEN DAU

# **ELEIZEARI BEGIRA**

## **NORKIEN ARAZOA**

Elizearen barruan norkiak, notiñak, ba dauke garrantzia. Eleiz-arduradunen artean esan gura dogu batez be.

Aita Santuak eta Gotzaiñak Eleizeari bideak agertzen eta argitzen dautsoez eta ez da bardin izaten bata naiz beste izan. Ez. XII Pio eta XXIII Jon ez ziran bardiñak eta Aita Santuaren aldakuntzeak asko aldatu eban Eleiza osoaren jokabidea. Antzera esan al izango dogu urte gitxi barru. VI Paul eta Jon Paul biak ez zirala izan bardiñak eta argitasun barriak izan zirala Eleizearen aurrerabidean.

## **AITA SANTUA**

Ainbat urtean VI Paul'egaz bizi izan ondoren, bat-batean zelako aldakuntzak sortu jakuzan, gizonen aldakuntzak gitxienez !

Aita Santu kezkatu ta samindu baten ondoren, bere barruko poza barrez agertzen eban Aita Santua, baiña aldi labur baterako baiño ez, zori txarrez.

Zelako garrantzia izan dauan barreak ! Gauza txikia da, baiña gaurko munduak aunditzat artu dau.

Eta orain II Jon Paul etorri jaku: Fede sakona ta sendoa dauken lurraldeetatik ain zuzen be. Eta poztasuna munduarentzat agertzeko eran au be.

Aldi garratzak igaro ondoren, poztasunaren aizeak joko ete dau ba munduan? Ba dago bear-izana. Munduan, baiña geien gure artean, poza artzeko bakea eskuratuko ba'gendu !

## **GOTZAIÑAK**

Ain nabarmenak ez ba'dira be, antzeko arazoak daukaguz gure gotzaiñen artean.

Bilbo'ko Añoberos jaunak bere ardurai agur egin dautse. Eta zergaitik eskerrak emon daukagu, gotzain apal eta adoretzu oneri. Beronek agertu ditu inork baiño argitsuago Euskalerrriaren eskubideak, XXIII Jon'ek esan zituan berbak eta gero Eleiz-Batzar Nagusian onartuak kontuan dirala.

Izan zituan orretarako laguntzailleak, baiña berak argi egin eban, egin bear zanean.

Gazteiz'ko Ballabriga jaunak ba egin eban bere agurra.

Eta, diñoenez, laster entzungo dogu Donosti'ko Argia jaunarena be.

Ori orrelan dala, iru goterki geratzen jakuz artzain-billa, laguntzaille bi, Setien eta Uriarte jaunak be or begien aurean daukaguzela, biak oso egokiak bertan geratzeko.

Zer egingo eta dau Eleizeak une onetan? Arduragarria da gutzat.

## **EUSKAL-GOTZAINDIA**

Gure ikuspegitik gauzak ikusita, oraintxe dala, esan lei, Gotzaindi euskalduna edo gotzain euskaldunen «Konferentzia» sortzeko sasoi egokia.

Gaiñera, Iruñan be Gotzain euskalduna daukagu, Zirarda jauna. Emen izan zan, aldi baten gure artean, aldi larri ta estu baten. Ez eban dana ondo egin, baiña gizon bakoitzak ditu bere neurriak, audartasunean, sakontasunean, argitasunean...

Izango al da unea, Euskal-Gotzaindia sortzeko. Napparoa be, politika-aldean arazopean daukagu, eta Iparraldea urrin baiña Erria alkartzeko Eleizearen jokabidea argitasuna izaten da.

## Erosotasunak iruntsiko gaitu!

### GUZTIOK EZIGAI

«Eziketa» itza erabiltzean, aurreko idazlanetan esaten genduanez, gizarte osoa kontuan artu bearra dogu : ez dira umeak bakarrik ezi bear, danok gara ezigai, il arte.

Bizitzaren lege bategaitik, adiñekoak txikien ezitzaille biurtzen gara, baiña onek ez dau esan nai beste neurri batean geu be ezigai ez garanik.

Gizerteak, urteak zear, aldakuntza aundiak ditu.

Aldakuntza orrein sortzaille garan neurrian gara ezigai be, bizitza eta egoera bara baterako gertu bear gara eta.

\* \* s:

### EUSKALERRIAN

Beraz, gure eziketak ba dau Euskalerriaz zerikusirik.

Ezin ditugu banandu.

Eta geiago: batu bearra dogu.

Eziketa bat, teoriak gaiñera, ekintza be ba da.

Teoriazko elburuak jartzen ditugu, baiña gure ekintzak sarritan eguneroko bizitzari lotuta dagoz.

Ezin ditugu euskaldun elburu batzuk jarri, eta Euskalerriaz aitzu.

Ideak eta asmoak onak dira, baiña leenengo bizitzari lotuta.

Biarko bideak gaurkoari erantzunda egingo ditugu.

\* \* \*

### ARAZOAK

Gaurko euskal gizartea aitatzen dogunean, geienbaten gure Erriaren egoera naiko illun ikusten dogu : ekonomia indargetua, askatasun eza, autonomia urruna, sindikalgintza atzeratua, erdal komunikabideak nagusi, euskeraren arazo gorria, siñismen galtzea, telebizio eza, eta abar.

\* \* \*

### ITZAK ITZ?

Zelan konpondu guzti au?

Itaun onek erantzun asko izaten ditu.

Sarritan, zoritxaxrez, oso teorikoak.

Ez dakit gure itzak aintziña euken indarra galdu ez dauan.

Non da gaur **euskaldunen itza?**

Itza eta ekintza gure aurrekoengan bat ziran. Gudan orrela danik ez dirudi.

Gure itzak geienetan gitxi balio dau.

Itzak itz, eta ekintza orduan, gure jokabidea «erosotasuna» cia.

\* \* \*

### IZERDIA

Txarra al da erosotasuna?

Ez, ez.

Erosotasunaren aldekoa naz.

Lana ez jat bat be atsegin.

Baiña... gure Erriaren egoera illunean, ba ete dago lana baiño beste biderik?

Erosotasuna berez ez dogu. txarra: gaurko gizartearen elburua dogu.

Obeto litzakigu gure elburu danak eroso lortu.

Baifia ona emen eziñeko gauza bat: aalegin barik ezin berbiztu ez ekonomiatik, ez izkuntzarik, ez besterik.

\* \* \*

### NOK SARTU?

Erosotasuna dogu, ba, gaur egunean nine usteko euskaldunen uts berezi bat.

Mingain azkarra dogu danok, baiña gure ekintzak laburrak dira.

Eta onelakoak garanean, pentsatu dagigun zelan goak izango diran gure ostekoak.

Or dago gure erosotasun edo erosokeriaren beste ondorio bat: nork sartu gure gazte eta umei Euskalerria aundi egiteko lana baiño beste biderik ez doguna, bide ortatik gu geu ikusten ez bagaitue?

\* \* \*

### EREDU BI

Onetan ba ditugu. erri eredu bi: Alemania eta Israel.

Munduan ez dogu Alemania baiño erri lurperatuagorik izan.

Guda Orokor biak galdu ebazan, ants eginda gelditu zan eta gaur, ostera...

Israel be era bardiñean ikusten dogu: gizaldietan eta gizaldietan atzerriratua, munduan zear bere semeak bananduta, eta gaur...

Bai batak eta bai besteak, lanari esker, izerdiari esker, erri nortasuna eta bizibideak lortu dabez.

Jarraituko ete dogu euskaldunok, guk eta gure semeok, bide bardiñetatik?

**LEGARRETA'tar Josu'k**

# PIZTIEN BURRUKEA

## KAKARRALDOA

Kakarraldo bat ebilla bein bedar-solo baten eta zaldi aundi bat agertu jakon, bat-batean irrintzika.

Kakarraldoa oso-osoan bildurtu zan eta estuaren estuaz bedar-arte baten ezkutau zan, zaldiak ikusi baiño lenago.

Zaldiak ez eban ikusi baiña bere anka aundiakaz bedar eta guzti zapaldu eban.

Laster entzun zan an inguruan kakarraldoaren oiva bedartzatik eta larritasun aundiaz: Ai ! Ai! Ai!

Zaldiak ez eukan kakarraldoaren ardura aundirik. Bizi ta indartsu egiten eban bere irrintzia, baiña kakarraldoaren aieneari ez eutsan jaramonik egiten.

—Ai ! Ai ! Ai !, esaten eban kakarraldoak bein eta barriro. Kendu egizu zure anka zar ori nire ganetik ementxe il bear nozu ta.

Baiña zaldiak ez eban kendu gura bere anka zar ori ezergaitik be.

\* \* \*

## KAKARRALDOAREN ASARREA

Asarre bizian jarri zan azkenean kakarraldoa eta zaldia ankapetik urtetea lortu ebanean, piztien arteko guda ikaragarria sortu eban.

Orretarako, urten eban bere bedartzako zulotik eta joan zan arin-arin inguruko zelai, ortu, baso, solo eta sasietara eta an inguruan ziran pizti txiki guztiak daitu eutsen, azagaria edo lukia baiño txikiagoai.

Pizti txiki guztiak alkartu ziranean, bear zan lez lerroetan ipiñi zituan eta pizti aundien aurka gudea egiteko berbaldi luze bat egin eutsen. Guztiak berotu ziranean, pizti aundiai gudarako deia bialdu eutsen.

Laster etorri ziran basoetako pizti zar guztiak eta aurreko mendi baten jarri ziran. Ikustekoa zan gudaroste bien egoerea: Mendi baten pizti txiki guztiak eta beste baten, an aurrean, aundiak, alkarrari begira, aurrez aurre, alkarrari arrokeriak eta erronkak botaten.

\* \* \*

## AZAGARIA ZELATARI

Pizti aundiak be, aundiak izan arren, bildur ziran. Ez ekien txikiak zenbat eta zelakoak ziran, eta nork jakin! Txikiak asko ta okerrak izan ezker, burrukea galdu bear ba'da!

Orregaitik, lenengo arerioak zenbat eta zelakoak ziran jakitea ebatzi eban.

Azagaria, lukia, joan zan txikien artera ori ikusteko.

Baiña txikien artean ba egozan usaiña artzen onak ziranak be eta azagaria urreratu zanean, naizta isillik urreratu, laster asmau eban bere buztanaren usain txarra, bere ule artetik urtetan eban atsa eta laster asman eban an euren artean egoala azagari malmutz ori.

\* \* \*

## TXIKIAK BIZKOR

Lukia euren artean egoala jakin ebanean pizti txikerrak arin arduratu ziran eta guztiak bat-batean bere aurka jagi ziran eta, alderdi guztietatik, gaiñera jausi jakozan: erleak eta iñurriak, kuribioak eta kaparrak eta zenbat olako !

Estu ikusi eban bere burua azagari edo luki maltzurak. Arek egiten zituan jauzteak eta garagarrik, agindakak eta putzak ! Izerditan eta zarataka, errukarria!

Etorri zanean buztana arro ekarri eban, baiña andik urten ebanean ondo apal eta beeratuta eroan eban.

\* \* \*

## PIZTI AUNDIAK LARRI

Pizti aundiak, azagaria ez zala agiri eta, oso larri eta artega egozan: Zer jazo eta jakon azagari edo luki zurrari?

Agertu zanerako, guztiak urreratu jakozan eta esan eutsoen:

—Ta? Zer? Irabazi al izango dautsegu guda au txikiak ?

—Bai zera! Pentsau be ez ! Txikiak dozak, baiña bizkorrak !

ESTONBA'tar Manuel'ek

# EUSKALERRIA

# GAZTELUGATXE

Orain ille batzuk, bertotik esaten neban, Gaztelugatxe'ko San Juanien baseleiza txarto zainduta egoala.

Danok dakigu ugartearen zubi baten bitartez lurrera, lotuta dagoala, eta zubi ori jausteko arrisku handian egoala. Au da nik esaten nebana.

Gaur oraindik zubiak zutunik jarraitzen dau. Naiz itxaso handiak, zein aize indartsuak igaro ordutik ona, zubi ez da jausi.

Baiña ez da zubi idazki onen oiñarria, baseleiza bera baño.

Dakizuen legez, izparringietan irakurriko zenuen eta, euskaldun txar batek, obeto esanda, gizon txar batek, ez dot uste euskalduna izan leitekenik, ez ona ez txarra, sua emon dautso baseleizeari.

Lau ormak baño ez dira galditu zutunik.

Benetan min handia egin dau gizon txar onek Bermiojko eta Bakiojko jendearen biotz barruan.

Benetan adimen bako eta odol txarreko gizonak izan bear dau, iñori txarrik egiten ez dautson eta on asko egiten dauan gauza bateri sua emoteko.

Siñisten dabenezako ongarririk bat izan da, eta siñisten ez dabenezat leku eder bat, eta iñori ez dot uste kalterik egiten eutsunik.

Egia esan, baseleiza au bermiotarra da, baiña santu onen omenez egiten diren jaiak, Bakioin egiten dira: Ekainillairen 24'an San Juan eguna eta Uztaillairen 29'an, San Juan zintzurtako eguna.

Nork ez dau ezagutzen bermiotarrak baseleiza oneri dautsoen onerazpen handia? Itxas-ontzi barria ataraten danean, ugartearen aurrera ercaten dabe santuaren bedeinkapena artzeko.


Baseleizaren aurrean padarraren (ermitaño) bizilekua egon zan, an padarrak boa eta jatekoa emoten eutsen San Juanjera joaten ziren peregrinoei.

Kondairari apur bat begiratuaz, X'garren gizaldien egiña dala esan bear, eta baseleiza izan baño lan, gaztelua izan zala.

1100'garren urtean prailletxe biurtu zan, eta XIII'garren gizaldian, jausteko arriskuan egoala ikusirik, bera bota, eta barria egin eben, Au da gugana eldu dan benetako baseleiza.

Iru aldare euki dauz, eta nagusienean, plater batean, Erdi Mendean egindako San Juaneen burua egon da, kristelezko begiak ipiñita.

Bere peregrinazioa egiten etorri zan San Juanjera Santo Domingo de la Calzada, Baita Juan Nuñez de Larairan, Bizkai'ko Jaunaren gordeleku izan zan 30 egunetan, Castilla'ko Alfonso XI'garren erregea beren billa etorri zanean. Baiña berak izenak diñoan legez, Gaztelugatxe, ez zan erreza an goian egoana jatsi arazoteko, eta azkenean erregea beren lurretara joan zan barriz esku utsakaz.



Baiña 1782jko Jorraillajren 29jan Inghaterratik etorritako itxas-lapurrak arrapillatu ebien baseleiza au.

x

Beste gauza bat be ba dago, benetan aipatu leikena.

Asiera batean baseleizea Galdiz mendian egiteko ismoa egoala diño. Baiña besperan egindako lan guztiak, ugartearen gainean agertzen ei ziran eguzkiak urtetan ebanean. Lenengo asma, sorgiñen gauza ei san.

Santuaren gogoia ugarte gainean egitea zala ikusirik, ;izonak santuaren gogoia betetu eben.

Au da labur-laburrean kondaira txiki bat.

Ba dagoz beste gauza batzuk, esate baterako, Santua ugartetik eta Bermiora iru pausotan joan ei zan.

Gaur oraindik ikusi geinkez beren oiñak.

Eta guk oiña sartzen ba dogu, señaile orretan, sekula oiñetako penarik ez dogula eukiko diño esatera saar batek.

Zoritzarrez, orain idatzi dodana, kondaira baño ez da, izana (realidad) beste bat da.

Baseleizako lau ormak baño ez daukaguz, eta negar egiteak ez dau ezertarako balio.

Nork konponduko dau, ainbeste euri, ekaitz eta itxasoko aize gogorak jasan ondoren zutunik jarraitzen izan dauan baseleiza, eta sekula jaio bear ez eban ;izonaren eskuak sua emon dautsen Gaztelugatxejko jan Juan?

# BIZITZAN ETA ERIOTZAN

## POZIK BIZI

Sarritan entzuten izan clogu, kristiñau. lez biziten, eriotzarako ona dala, baiña emen biziteko txarra.

Esalcli ori ez dala egi osoa, esan bearrean aurkitzen naz.

Ori egitzat claukenak, kristautasun berezia dauke: Lurreko atsegin guztiak pekatu dirala, uste dabe; eta ori ez cia orrelan.

Emengo jolas eta atsegin asko, ez dira pekatu' Jaunak berak gutzat egiñak baiño eta guk, kristiñau benetakoak izancla, erabilli geinkez lasai ta pozik.

\* \*

## OSASUNBIDEA

Egia cia, kristau lez, pekatu cliran atsegiñak alde batera itzi bear dirala, baiña ori ez da gauza galgarria ta kaltegarria gure emengo zorionerako. Atsegin orreik sarritan soiña makaltzen dabe, osasunaren kaltegarri dira eta, ondoren lez, kezkea ta larritasuna izten clabez.

Egia cia kristiñau lez bizi nai claben gizakiak guzurrezko atseghn asko alde batera itzi bear dabezala, baiña orrelan osasun obcagaz eta luzarogo biziten. dira.

Jolas apalak, jolas garbiak ez clabe gizonaren bizitzea erreten. Griña txarren pozak eta gozotasunak, ostera, osasunarentzat oncloren txarrak dakarrez.

\*

## ERRI ALAITASUNA

Kristau morala onartzeko, gauza askori ezetza emon bear jake, baiña ortik sortzen cliran alclercli onak, obeak eta ugariagoak clira.

Orregaitik, kristiñau-bizitzea rnunclu onetarako ta eriotzarako onena clala esan geinke.

Gure Euskalerrria kristiñauen moralagaz bateratuta ta alkartatu, erririk alaienetarikoa izan cia.

Kristiñauen morala estuegi artu cia aldi baten eta orduan emengo bizitzea illuna ta tamal antzekoa izan zan, batez be Jansenio'ren irakatsiak Euskalerrrian geiegi zabaldu ziranean.

Era ori uxatu zan eta benetako poztasunean bizi izan da gure Euskalerrria, bai gaztaroan baita zartzaroan be. Bai bizitzan, baita eriotzan.

\* \*

## GAURKO GIROA

Eta gaur zer?

Kristiñau-bizitzeari edo moralari uko egiñik, tamala geitu cia gure errian.

Au ez cia Jainkoak gura eban erria! Gurc erria ez cia negarrerako egiña, pozik biziteko egiña baiño.

Iclazteu.nak auxe diñosku: «Poztasunean otseindu egizue Jauna».

Askok, poztasu.nerako beste bide batzuk artu ditue, eta ez doaz zuzen.

Begira ta ausnartu nundik datorkigun benetako zoriona eta ikusiko clop, kristiñauen bizitzea dala onena eta zoriontasunik geien dakarrena, bizitzan eta eriotzan.

\* \* \*

## POZ-BIDERA

Lan aundia, lan ikaragarria, gure erria ostera bide zu.zene.ra ekarte, bide zuzencan ipintea, em.en.go atsegin guzu.rrezkoakaz begiak lausotuta claukazalako.

Baiña ez cia galdu bear itxaropena!

Izar barri batek urten eban Erroma'n Jon Paul Aita Santua aukeratu ebenean, bere arpegiko irri-barreagaz zorionekoa zala agertu euskunean. Eta izar barri orrek illuntasuna izan ba'ciau be, zalantza barik, bide orretan argi egingo datt urren-goak be. Ba geunkan euskaldunok be, irri-barrezko fedea agertzeko bear-izana !

## ITXAROPENA

Egoera larri baten gagoz. Asarreak, gorrotoak, alkar ikusi eziñak, norberekeriak. eta abar.

Esaldi oneik egunero darabilguzan gaiak dira.

Naiko zergaitik dagoala esan daiteke olan pentzateko.

Izparringiak, irriatiak eta telebistak egunero clatorkiguz irudi baltz orreik erakusten; eta ez da arritzekoa ba, ingurua guk olan ikustea.

Baiña egia etc cia ba? Edo obeto esanda, egi osoa ete da gure gizartea ain gaiztoa dala?

\* \* \*

Ez ete clap) ludian, geure biotzeko euskalerrri onetan, erakusten jakuzan irudi orreik, guzurtzat itziten dabezan gizon edo emakumerik?

Beti izan bagara auzo-lanetan ekiten izan dautson erria, gure araudiak, gizona gorengo maillan ipiñiaz, danak bardiñak gareala (Jaungoikoa bakarrik Jauntzat arturik), adierazoten badau.sku.e, nondik nora orrenbesteko atsipen edo pesimismo?

Zenbat aldiz ausnartu doguz gogapen oneik, eta baten baiño sarriago erantzun garbiak artu.

\* \* \*

Azkenengoak oraintsu. Eu.zkadi'tik zear izan dogun ibillaldi batean.

Urtero, lagun talde bat alkaturik, gure Aberriko edertasunetan, sakondu-naian, gaur emendik, biar andik ibiltzen gara, egun bi edo i.ruko joan-etorrian..

Tamalez aurten ezin izan gara alkartu danok: Bata betekotasun zorionera joana, eta bigarrena ezbear astun baten dagoalako, Berak ain maite dauan emaztea gaixo zital bategaitik ogeratuta egonik, ezin izan gaitu lagundu.

Baina nai ta bera etorri ez gorputzez, bere arima, bere espiritua gugaz izan dogu.

\*

Samintasuncan ezagutzen dala gizona nor dan, antxiñako esana da, ta zelako egi sakona bera.

Gure lenengo bazkarian ibillaldi aretan, taldeko batek magnetofonoa maiarem. gaiñean ipiñiaz, non arritzen gaituan Gerardoren bertso mam.intsuakaz.

Il zorian bere emazte kutuna eta lagunak go-goan? Norbera umezurtz eta iñori laguntza opatzen?

Benetan onelako gizonak dagozan artean gure Errian, ez daukagu. zergaitik bildurrik izan. Ez da Euskal Erria galduko. Ez geunkan beste itzaldirik gure espanetan, I.ruñarantz giñoiazala arratsaldetan.

• \*

Gure zoritxarra uri atara eldu. giñanean.

Egun beratan, goizean, kamioi batek ume errubako bat jo ebala ta asarre gorrian Iruintarrak, uriko arduradunen nagikeriari errua ezarriaz, oiñez dabilzanan osasunak zaintzeko artu., bear ziran bideak artu ez obezalako.

Eta orra or, gu geu be errubakoak, Baltza orretan sartuta.

Ertzainak esk.umatik joateko, an egurrak, bi-doiak eta abar, ta ainbat atzera aurrera egin ondoren, kale estu baten, ez batera, ez beztera ezin egiñean..

Asarrea batetik, aurpegi illunak bestetik. An emon genduzan ordu bi, eta geiago be emongo genduzan Iruñatar batzuk, euren auzo-lagunak konbentzidu ez ba'zituen, guerru.bako giñan ezker, ez geunkela zergaitik zigorrik izan, eta azken baten bide askatzea gernikan geure aurrean.

\* \*

Baiña ainbeste atzera aurrera egin da gero, nondik edo zelan urten Iruñatik bide zabalean ostopoak baegozan?

Euskaldun bat aurreratuta, nongoak zarie? itandu. ta, gure erantzuna emon ondoren, neuk atarako zaituet emendik esanik, autobu.sera igon, ta zazpi kilometroko bide luze, estu batetik, Tafallako bidean itxi ginduzan.

Ez geu.n.kan zelan agertu gure esker ona, ta besterik ez bazan, taxiz batean barrero Iruñera biurtzeko, dirua eskeiñi geuntson.

\*

Baizcra. Gure anaiak zaric, eta zeuokaz nago ni zorrean, berak.

Gugaz zorrean? - guk. Bai zeuokaz, ze anai batzuei laguntzea eta eurak laguntza ori onartzea ez da eguneroko gaia.

Ezkerrik asko ha gai ori betetzen itxi nozuelako.

Zer egin leitekean? Danok zutu.nik, bat baiño geiago negar malkoz ikusrn.en.a itzuturik, Agur Jaunak, ezkeiñi gauntson.

\* \*

Bai, badago zergaitik itxaropenetsu egon.

Ez da dana zitalkeri ta gorrotoa. Orreik agiri dira txapeldun gure barriketetan, baina geien batean cia, ez dogulako gure eguneroko ekintzetan sakontzen, zelako lora ederrak dagozan gure inguruan, gu.re lorategiak, len esandako izpar emoillecen laiñoak, ikusten itxiten cz deuskuckako.

Ez daigun ba itxaropenik galdu, gure Erria, here izatea ta nortasuna bizirik dagoz, Jaungoikoari eskerrak.



# NORTASUNA

## JOKABIDEAK

Euskal jendearen jokabideak, asko, iralatsi deust nere bizitzaren. gora-beran.

Txikitatik dei egistan nere inguruak.

Ta ni ere adi nenbillen lagunak eta jazoe-rak ikusten.

Lagun eta jazoera bakoitza etziran utsez-koak. Edozein lagun bere egikereekin mundu bat zan.

Ta lagun geientzuenak euren jokabide-ekin, biziari bere sena emon ta gizarteari bere itxura berezia ezarten eutsen.

## IZATEA

Euskaldunarentzat gizon-nortasuna norbe-raren izatean egoan.

Buru argiak, biotz borondateak ta giza eskatasunak gizonari, berez, zor jakon duinta-suna damotse.

Eta euskotarrak, oiñarriz, biziaren zera artzen, ondo, ekian.

Gizon areek egizaleak zirela ikusten ni-tuan.

Ortxe, egoan noski, gure jendearen argi-tasuna ta gatza.

Ta onei ere zentzun ortatik etorkien eus-kaldun gizontasuna.

\* \* \*

## EZ EUKITEA

Gure erritar jendearentzat aberastasuna ta gizontasuna etziran bardin.

Dirudunari loxinkeriak egiten, oituraz, ez neban ikusten ez kale ta ez baserriko jenderik.

Nola nai ere, euskal seme bat zelan bar-dindu leikezu metal-uskeri ta diru paperagaz?

Euskaldunarentzat, eskean ebillen gizona aundiago zan jokoan ta jolasean diru eralgiten ebillen jauntxoia baño.

\* \* \*

## EZ JAUNTXUAK

Ori dala-ta, Lege Zarrean, euskaldunak jaun bezela artuak ziran guztiak.

Ta erriak ostera, aberaskerietan ta aundikerietan ebiltzanei «jauntxoak» izan polita esan oi eutsen.

Indarra, jakituria, nai diruzko aunditasu-na ez dira gizonaren nortasun emoillean.

Euskaldunarentzat baliokoa zan gizon iza-

tea. Egia, zuzentasuna ta maitasuna euki ta zabaltzen ebana zan deduz artzea merezi ebana.

Gaur ere euskotar zintzoak bide ortatik doaz.

\* \* \*

## ZENTZUNDUNAK

Euskaldunak giza zentzunean oiñarritu eban gizontasuna ta lagunena, nortasuna.

Ori zen edozein euskotarreen pentsabidea.

Ta asmo bardintsu au asko ta askoren barruan egoanez, erriaren zentzuna erat ortan zertu bear zan.

Ta jendeak jaunkeriar barik gizontasuna-ri begiratzen eutson, ta era ortan ,erri zen-tzunduna sortu zan.

Erri zentzundun onek gizon asko emon zituan egia errian bertan, ta mundu zabalean edatzeko.

Euskaldunak, bai gizon legez ta bai, abade bezela, munduari on. asko egin deutse bere zentzun ta egizaletasunagaz.

\* \* \*

## ERRIA TA LANGILLEDIA

Gure jendeak, berez, artu ditu erriaren-gandik gauza baliotsu bi; langillearenganako maitasuna ta errizaletasuna.

Ez gara barriketalariak, baño bai erri jende zeiaeren adiskideak.

Auzokoaren bear izana sentitzen, beti, asmau dot euskaldun zentzunduna.

Euskaldunaren sena, ortxe, sortu da. Ta lurreko ondasun guztiak bardintsuago nai. ditu bere inguruko anai guztientzat.

Emen, erria, berez-berez, batzartu ta anai-kortu egin da.

\* \* \*

## ANAIK ETA AMA

Euskaldunak anaiak ezagutu ta aintzat artukeran., ama be ezagutu dau, ta lagun-arte oberik ez dau aurkitu.

Euskalerrria ta bertako jendea maite ditu. Biontzat nai dau bizia.

Erriari berari zor jakon askatasuna, ta jendeari erri-askatasun osoan bizi izateko bear daben aloger egokia.

Au berez, sentitzen dabe gure erritarrak, eta au, berez, da, euskaldunari zor jakon egia.

SOLOZABAL'tar Paulin

## GORALPENEZKO LANAK

Aurten eun urte jaio yakun —1878-9-7'an— Kepa Enbeita Muxika'ko Areatza auzune atsegingarrian.

Zor dautsoguz, bada, gomutapen gozoa ta biotz, agur gartsua.

Eguzki dirdaitso izan yakun bere garaian gaztetatik il arte, beti kantari ibilli zana. Origaitik, gaur be, aGure Urretxindorra» deritxagu.

Aren txinta arnasa, izan be, geure egunetaraiño luzatua dozu, eta ez errez ixil-aziko aren kanta-ariaren durundia.

Zer-nai Baitan abestu auskun, goiz eta arrats, txindor zoli gogait-eziñaren pareko. Nik, alan be, lantxo onetan a ren goralpenezko kankak, gain samarretik, aitatu besterik ez dot egingo.

Aberri-maitez bizi danak, edozerk eraginda, abeslari ekin oi dautsa.

Gauzarik zirtzillenak jarten bait dautsa barrua atezuan, au da, kantatzeko gertu.

Begi uts eta biotz dardarti genduan Enbeita edozeri doiñu oskidetsuak aterateko.

Beronen olarki-sail oparo ta bikaiñean, ez dira gitxiñen —89 sailkatu nitun nik aGure Urretxindorra» liburuan— goralpenezkoak.

Ona emen batzuk bost sailletan, ia danok «Euzkadi» egunerokoan azaldu ziranak.

\* † \*

## BERE EMAZTEGEIA

Ogeta lau urtetan ebillela, Ibarruri'n eukan Kepa'k bere emaztegeia, Bedite Goiria; 1903-2-21'an ezkondu ziran.

Baiña aurretik naikoa ikusi bear neskakil ain ona berenatzeko; neskearen etxeakoak ez eben gura euren alabea alako gizon ezeukiaz ezkonterik.

Orduan mamindu zitun Kepa'k bertso oneik:

«Ikusirik lora bat, ez emetik urrin,  
neure poz-atsegiña Goiko-Elxebarrin  
nik bera eskuratu ezlagidan egin  
batek baño geyagok eun dabe alegin;  
baina zirkin andirik eztautsie eragin».

Ezkongei ziran artean, Bedite'k sarri esan oi ebanez, bertso asko be asko bialdu eutsazan Areatza'tik; idazki ordez bzrtsoak ziran, eta berak etxeakoen bildurrez erre egiten ebazan. Baiña, iraupenaren indarra! Kepa'k bere lenean irauten, eta alperrik izango ziren albotik urtendako sasi ta arantzak. Lora maitia dau, alkar maite dabe; ezin, beraz, itxi. Azken-aapaldian diñotsa:

«lirio lora zara, udabarrikua,  
egizko euzleltzale, biotz onekoa;  
orrexegaitik zara neure gogokua.  
Laster luzetuko dot neugana eskua,  
artzeko maite dotan lora pozezkuu».

## EUSKAL ERRIAK

Zoragarria benetan eusko lurra! Eta lur onen gainean gu, euskaldunok geure doe ta akats guztiakaz. Eusko lurra ta euskalduna —beronen nortasun oso-osoan maite izatea, lur-rak berak eta gizatasunak berak eskatzen daukuena danik ez ukatu. Enbeita'k berez kutun eban bere lurra ta lur onen jabe dan euskalduna.

Ak bere olerti-lan ugarietan ainbat euskal erri aitatzen ditu, beti goratzeko gainera. Begoz emen iru oneik: Gernika, Bermeo, Eibar.

## GERNIKA

Umetatik joan oi zan Gernika'ra; astelenetan antxe erosten zituan bertso paperak, etxean buruz ikasi egizan. Erri bikaiña eritxon, garbi, alai, txukuna, «lau aldetatik begirata, zeru txiki bat» irudtizen yakona. Pozik dabes:

«Erri ospetsu polit ederrak  
ludijan ixan arren aneika,  
gustijelatik begikoena  
nirezako zeu zara, Gemika».

Gogora dakar bertatik aintxiña, 1876'rarte, zer izan zan.

«Zen zara egiz anlzinietatik  
r\_uzentza-zalaijatorrizkuu,  
gure asaben Batzar-tokija,  
Lagi zutenen gorde-lekuu».

Jaingoak egiña ikusten dau, euskoen eleiza, goi ta bee urdiña; eguzki ta izar ederrez jantzi eban Goi-goikoak. Onela darrai:

«Zeure ormeak mendijak dira,  
zure au pillak dira zugatzak;  
zure ondija zelai ortegi,  
argu lora zuri-gorritzak».

## BERMEO

Bermeo, itxastar erri apain, milla kolorezko gizaseme ta ontziz jantzia, Gernika baizen maite eban. 1919'an, onela goresten ekion:

«Bermio nai dot goiralda  
dalako euzko-eredu;  
gizon kementsu la andra zintzual-  
an dira azaldu;  
zentzurik eztabe galdu,  
naitz-la ozola zabaldu...  
jel-areyuak ezetara be  
ezin dauz zapaldu».

## EIBAR

Orobat Eibar. 1922'an, an eskeiñi outsoen jai ostein, erri langille au bedeinkatu ta goratu naiez, idatzi eban:

«Zure biotza, Eibartarra, da  
euzkeldun biotz samurra;  
zure biotzaz Euskal-Errian  
egin lezake zer-gura.  
Domekan goyan jarri zenduzan  
zeure izena ta onura.  
Eskerrikasko, le artuizu neure  
zorun-opazko agurra!».

## GAZTEAK

Etzan aspertu iñoiz gazteak goratzen. Abertzale lez lan egien, gogoko zituan.

## URTEROKO «C Lar

Ikaz, aspaldiko urtcotan emen Lz indar geiago ezartearren, berau pizke emparauen artean. Beraz, zirikatzaill jardunbidea zerbait aldatu egingo du;

Igazko poesijaia ospatuta gero, rrak onela idazten zidan: «1978 Oler musturrak egoki zehaztu barik. Bazkal arako olerki-gaia gura ta gurazekoa I bururatu jat niri. Ikusi puntuok:

**Lehenik.-1978'gko** «Olerti-Egi opa, egokiera onezaz: «Sabin, olerkari;

**Bigarren.—Lirika** saillean, beste ren gogara, gai ezarririk bage, ez be

**Irugarren. Lirika** sail orrelan, zeregiña errezagoto ta aiseago bete dal eta errimadunene alde batetik, eta ber zigarririk balitz, sari bana meta bal

Laugarren.—Olerki jai au, bere **ohi-eza** ezarri da, eta ain zuzen, izlau Goiri'tar Sabin, olerkari». Euske:pz e; tamañuan, lerroz lerro bitartea utsik

Nils, nere aldetik, ez dut oztopori txalogarri au aurrera aremateko. Azke naiz auskal idazle bati omenaldi beraz goa bedi gure abandotar maixu aur

Aurten, bada, lau sail izango c III. Bertso saila, ta IV. Saio saila. La eguna. Zuzenbide ontara igorri: Aita

Jaia 11 ta erdietako meza ostein ezarteko, olerki sarituak irakurri ondor digu; lana, luze samarra balitz, aren

# A (1878-7978)

An-or-emen, gogotsu ziarduen gazte pilloak erria itxartu ta gora jaso nairik. Eder yakon batez be Bilbao'ko Euzko gaztediaren lana.

Sarri aitatzen dau bere bertsoetan «Euzko-Gastedi» alkartea; onek amaika urtean egiñiko lanaz lilluraturik onela abesten eban 1915'an, Gortazar, Egileor, K. Eleizalde ta olakoen jardunak ikusiz:

«Auxe bai dala poza, au nire atsegir'n!  
Alaitasunen andiz eztakil zer egin;  
gaurko jai gurgarri au zoruntsu izan dedin,  
jaunai otoï daiogun biotz, gogo la adin.  
Gora Euzko-Gastedija gurendaz Euzkadi'n!

## EUSKAL IDAZLEAK

Lurretik bizi zana izanik be, irakurteak ez eutsan atsegin txikia ekar-

ten: lan bitarteko asti uneetan, orri ekin oi eutsan, irakurteari.

Orduko idazleak, beraz, maite ebazan; eta lan idatziak irakurriaz batera, iturritik ura lez, borborka etorkiozan pentsamentu ta biozkadak paperera aldatzen zituan.

Era orretan osotuak ditu ainbat euskal idazleen goralpenak.

## ASTARLOA

Arrigarri zan beretzat Astarloa; onek maite eban euskera, baita berak be. 1921'an, Euskaltzaindiak Durango'n ospatu zituen jaietan «Astarloa'ren Maitia» izenburu daroan amaika aapaldi ederreko poesia saritu eutsoen. Amargarren estrofan Astarloa'k diño:

«Berilaxe usteltzen dan lez  
arima bako gorputza,  
Euskal-Erria be ilgo litzake  
Euzkera ilgo ba'litza.

Eta K. Enbeita'k beingoan erantzuten dautsa:

«—Astarloa, ez bildurrik izan,  
etsaiak alper dabilta...  
Euzkellzaliok garbitukogu  
zuk diirauskuzun biotza.»

\* ::::

## TENE

Muxika'tar Errobustene, «Tene», Deba'n jaio ta gaur be bertan bizi dana dozu. Euskal idazle ona; bereau dau «Miren Ltziar'i idazkiak eta Olerkiak» (Zornotza, 1923). 22 aapaldiko poesi gartsua eskiñi eutson Kepa'k oni be, liburu ori gertatzen ziardularik. Udabarriko lorakaz jokolari, debatarren idaz-lana goigoi jarriaz, onela idazten dasku:

«Loreak dira onen idazki  
la olerkirik maminlaubenak,  
maitasunezko beren biotzen  
erdi-erditik urten direnak».

## KIRIKIÑO

1917'an «Kirikiño» izentatu eben B. B. B. barrian Lendakari. Oni eskintzen dautsa zortziko nagusi au:

«Agur, jeltzale gurgarri zaren  
neu'e aizkide kutuna!  
Itzez, idatziz, nainoz, edonun,  
euzkera rlarabilzuna:  
Bizkai guztiak maide daulako  
zure , jeltzaletasuna,  
berau izan da baita Zen genre  
burutzat auto zaituna.  
Zorün guztiak opaatzudaz, ba  
Deun Mikel lagun dozula».

## BELU-MENDU

Maite eban «Belu-Mendu», Bareño'tar, Juli, Gernika'tik «Euzkadi»'ra ainbat albiste jakingarri bialdu oi ebazana. Ona goraltzen eban, 1931'an :

«Ibai-ertz Zubiaurre, basetxe-leyuan,  
uso zuri alai bat ikusi nayuan.  
Ai, zein polit ederra Zoratu niduan.  
Ordutik ona beti yaukat neure goguan.  
Maite yuat biotzez, maite yuat gogoz,  
neure begiok berandi/c alde eziñik dagoz;  
yalcustak gau la egun, nai-nun ta edonoz,  
Zein poza biok abitxu Galen ba'gengoz!»

## LIZARDI

Laztan eban Lizardi, zarauztar olerkari bikaña, 1933'an Tolosa'n il zana. Aren eriotza zala-ta, zortzi aapaldi gartauro poesia mamindu eban Enbaita'k.

Onela diño laugarren saillean:

«Irudimen ederrez beterik egoan  
olerkari bikaña... il yakU beinguan!  
Olerkari ziiñan, bai, egiz olerkari!  
Olerkari kistarra, euzkaldun gurgarri.  
Beti ziiñart gauza-aundi, ederren egarri.  
guztiak opaltzeko jel-maitez A mari».

Era onetan goretsi zituan Arrospide, Txomin Epaltza, Lopez-Mendizabal'dar Ixaka, «Euzkadi», «Euzko-Deya», Unzalu'tar Jon, Asuero osalaria, «Euskaltzaleak», Polikarpo Barrera, L. Lugones, Zornotza'ko emakumeak, Astelarra'tar Andoni, «Patria Vasca», Altube'tar Sebe, Aldolfo Urkixo, Ramon Sota ...

Nor ez?

Beljika'ko Alberto erregeari be olerki bi opatu eutsozan 1918'an. Eder yako aberri txiki au, baiña doixtarren menpean jausi da; ari laguntzeko getu dago Enbeita. Onela diño:

Ba'neukaz milloi bat egazkari  
eta sei milloi gudari,  
gaur bidalduka neuskioz pozik  
Alberta bakaldanari,  
etsaiak jaurti la baen Ama  
azke dagijantzal jarri».

Auxe dozu Enbeita, oleskari fiñ ezta. Nainorentzat ditu berba gartsuak. Euskaldun zintzo, langille dana batez be, goraldu nai dau.

Aita ONAINDIA

## ELERTI-EGUNA»

### 3a'n

e'n papatzen dugun «Oleri-Eguna»-ri •raberritu naia agertu zan olerkari ta beti edar dira-ta, aurreko orreetako aurtan, obetuz jakiña.

isebio Erkiaga, lekeitiar olerkari jato-egunaz zerbait azaldu genduan, baiña duan, Zubikarai'k zerbait agertu eban. ño, aske lagatea edo... Onetan, zeran

i», Larran, Arana Goiri'lar Sabin-i Beraz, euskal olerkari.

bezela, edozein gai izango da, egillea-rukuniz ez neurririk.

neta bi izango dira, epaikariak euren n; au da, azturazko bertsu naurridun i aske ta neurrigabeena bestetik. Mereztzeko olerkirik onenari.

ta aparteko izango danez gero, Sari ko Saio lanari eskeiña. GAIA: «Arana ia: naurria, 50 orrialde gitxienez, folio itzirik. Saria: 5.000 pezeta».

o'duan agertu ta ontzat artu zan asmo irteotan beti egin izan dioguna olerkari tat, Oleri-eguna dala-ta noski. Aurteneren gorotzarrez.

a: I. Lirika sailla; II. Pocma sailla; Lk bialtzeko epea: Urrillaren azkenengo naindia. Larrea-Amorebieta (Bizkaia). siko da. Eta kaikuneari akaclemi-giroa , Saio lana ere egilleak berak irakurriko Luña te laburpena azalduko digu.

Aita ONAINDIA

# LIBURUAK

## IKAS-LIBURU EDERRA

### IKAS-LIBURUAK

Gure ikastolak arazo asko ta sakonak daukez. Ez cia gaur txikiena erakunde barrietan zor jaken leku egokia billatzea: Kontzeillu Orokorragazko zer-ikusia, buru-jabetza barriagaz izango dabena, Lege zarren arazo orretan nondik eta zelan sartu, diru-laguntza nonclik eta nora lortu, gurasoen al-karteakaz noraiñoiko artu-emona, andereiñoak zelan gertatu, irakasteko agiri berik or lanean diarduenak zelan legetu, ta abar.

Baiña ikastolan antxiñako arazoa, betikoa esan geinke, ikas-liburuak dira.

Eta arazo au geroago ta larriagoa da.

Alcie batetik irakaskintza-legearen aldakuntzak ei datoz barriro eta nor ausartu laster balioko izango ez diran ikas-liburuak argitaratzen?

\* \* \*

### BITARIKOAK

Ikas-liburuen arlo onetan era bitakoak dira bearrezko: alde batetik euskal-kultureari buruzkoak eta bestetik kultura orokoarrari buruzkoak.

Arlo hi onein alkartzea ondo eginda euken, euren erara, eskoletako liburuak, dana España'ren ikuspegitik ikusten ebela, baiña guk arlo alkartze ori egin barik daukagu: Ez dogu sartzen gure lutelestia (geograffa) mundukoaren barruan eta geure ikuspegiz, bardin jazoten jaku kondaira (historia) arloan, antzera erti edo eder lanen kondairan eta beste sail askotan.

Eta ikas-liburuak bear-beareko dira.

\* \* \*

### EUZKADIKO «GEOGRAFIA»

Oraintsu urten cia argitara ikas-liburu eder eta zoragarri bat. Euzkadi'ko Geografia dauka izena eta Gregorio Arrien - Iñigo Agirre dira egilleak.

Ikas-liburu ederra benetan: Erri-euskera garbia, ingi egokia, argazki ta marrazki margotsuak eta apari garriak. 37 ikaskizun eta 170 orrialde guztiz. Lenengo 30 ikaskizu.n Egoaldeko lutelestia dira eta azkenengo 7'ak Iparraldekoa.

Gure lutelestia edo Geografia ikasi nai dabentzat, bai ikastoletan eta ez gitxiago etxeetan, nekez agertuko cia liburu egokiagorik.

\* \* \*

### EUSKEREAA

Irakaskintzan arazoa da euskerea bera be. Zein euskera erabili? Gipizkoakoa? Bizkai'koa? Iparraldeko euskalkiren bat?

Erantzuna ez da erreza, baiña, al izan ezkerro, ez cia txarrena liburu onek artu dauan bidea: Bizkaitarrentzat bizkaieraz eta gipuzkoarrentzat gipuzkoeraz, argitalpen bi egiñez.

Ez uste izan asko karu.tuten. dauanik be, argitalpen bi egin bear onek: lan asko dira bietarako balioko diranak, izkuntzan eta apaingarrietan ez cia dana ezbardiña.

Beste alde batetik gauzea ikusita, um.eentzat euren euskalkian irakurtea ta ikastea erreztasun aundia da eta umeak dirua baiño beiñagoak dira.

\* \* \*

### KONDAIRA-LIBURUA

Gregorio Arrieu'ek berak idatzi dau beste liburu txikiago bat, au be ikastoletarako eta onen gaia Euskalerrriaren kondaira dala.

Au askoz txikiagoa da eta euskalki bietan eginda dator, bizkaieraz eta gipuzkoeraz liburu bat bera.

Bearrezkoa zan kondaira-liburu au be ikastoletarako eta ikastoletatik kanpora be, asko ziran olako esku-liburu laburra eskatzen ebenak, gure kondairaren laburpena jakiteko.

Eta ordago liburu ori be. Urrengo argitalpenetan asko obetu al izango dala uste dogu.

\* \* \*

### LASTER IRUGARRENA

Ba dago beste gai bat be euskal-kulturaren barruan, jakingarria ta arduragarria: Elertia, litcatura.

Gai oneri buruz urten dala uste dot, baiña oraindiño ez dot eskuratu, irugarren esku-liburu eder bat-Aita Onaindia'ren Elertirako ikas-liburu.

Urrengo ZER onetan egin al izango dogu zabalkundea.

Zorionak eta eskerrak A. Fermin eragilleari, laguntzaille ta idazle guztiai, Euba'ko talde onetan langille diardu.enai.

Atera ikas-liburu barriak eta ikastoletan ikasi bear diran gai guztiai bu.ru.z.

OLAZAR'tar Martin'ek

# Bastres abata, euskal beneditarren aita

## LEIRE

Bederatzigarren gizaldian, Kordoba'ko Euliojo santua Naparroan zear ibilli zan. Eta berak ifioenez. Beneditar konbentu asko ta ederrak ziran Naparroan. Leire, danetan ederrena.

Sarrera aundia eukan bertora Eneko Aritza'k, Iruña'ko lenengo errege izan zanak. Bertan ikasi eban gaztezaroen, eta bertora joian sarri, atsedean eta aolku-eske. Eta orixe egin eben gero be Naparroako urrengo errege geienak.

Praile asko ei egozan konbentu ospetsu orretan; asko, jakintsuak ta santuak. Ori zala-ta, oso ezaguna ta aiatua ei zan Europa guztian.

Arrakasta ta eragin aundia izan eben praileok Naparroako arazo ta kultur-gintzako lan aundietan; baiña, andik bosteun urtera, galdu egin ziran.

## AGUSTIN BASTRES

Amairugarren gizaldian Ego-Euzkadin galdu, ta andik seireun urtera, ots, emeretzigarren gizaldian Ipar-Euskadin agertu.

Aita Bastres izan zan areen sortzaille. Lapurdi'n clagoan Senpere'ko semea zan Bastres, eta Larresoro'ko apaizgaitegian egoan irakasle. Buru argiriko gizona, bizkor eta eragille sutua, *izlari* trebea, jainkozale leiala..., bere inguruko abade gaztez inguratu, ta Prentzi'ko «Pierre-qui-Vire» konbentuan sartu zan. Beneclitarren bigarren loraldia etorren. Subiako konbentu aipatua] eraginda.

Jainkozale leiala, ta euskalzale zintzo, andik Euskalerrira etorri, ta berton beneditar konbentu barri bat sirtzea ow yakon. OW, ta baita egin ere.

## BELOKE

Lapurdiko Beloke erri txiki orretan egin eban konbentu barri ori. 1874-ko Iraillaren lenengoan egin eben euren sarrera beneditar euskaldunak. Beloke'ko erri osoa joian eurokaz, eta Senpereko seme zan Zaldubi olerkari ospetsuak egindako bertso oneek kantetan ebezen: «Ongi etorri, aita onak, Jainkozko gizonak».

Prior-etxe zan andik amalau urtera, ta abat-etxe urrengo urtean eta aita Bastres bertoko abata. Sekulako abiada artu eban konbentu barriak. Laister bete ziren ango gela ugariak; 72 praile, ta 30 prailegai ziran 1930 garrenarako.

Ez ori bakarrik; Mixioko griñak eukan Bastres abata, ta beste konbentu barri batzuk eraiki ebazan, an-emen, mixio-lurretan: U.S.A.ko Sacred-Heart inditarren artsan. Argentinako Vitori lurraldean, Palestinan, Aprikako Dahomey laterrian.

Ez eban itzi, bertan-bera Euskalerriko lana, Santa Eskolastika deiturako beneditar mojen konbentua egin eban alboko Urt erritxoan; eta zarrentzako etxe aundia, Pau'ko urian; eta umezurtz etxe polit bat Mugerre'n.

## LAZKANO

Ez ziran xamurrak izan aita Bastres'en egunak. 1903garrenean Prantziko agintariak bertoko beneditar guztiak kanpora jaurti ebezen. Aita Bastres'ek Gizpuzkoako Idiazabal'en batu ebazan here praileok, eta Jaunaren eskuetan itzi.

Urrengo urtean, here adiskide zan Arbelbide euskal idazle aipatua etorri yakon ikustera. Eta aita Bastres'ek Bidasoa igarotzean esandako itz au gogoratu eban, elizan egindako itzaldi ederrean: «itzuliko gara».

Ez zan, baiña, itzuli. Andik egun gutxitara, here oiko Meza esan ondoren, ondoezak jo, ta lurrera jausi zan; andik egun batzutara il zan santu lez.

Bere praileak, bai, etorri ziran, andik ogei urtera, eta Lazkano'tik etorri be; Idiazabal'dik ango konbentu zan batera aldatuak izan ziran-eta.

Ez ziran alperrikoak izan aita Bastres-en bizitza ta eriotza santuak. Indar barria artu eban Belokeko konbentua. Ango seme bi, Gariador eta Etxeberri aitak, mundu guztiko beneditarren abata nagusi izan dira. Eta euskalduna da oraingoa ere, Oyartzun'go semea, aita Mauro Elizondo, Lazkano'ko abata.

Bai..., prior-etxe zan Lazkano, 1943 garrenarako; eta abat-etxe, 1967 garrenean. Estibalitz'ko konbentu ederrera ere zabaldu ziran laister.

## EUSKAL ABI

Olantxe dira Beloke, Lazkano ta Estibalitz'ko beneditar konbentuaok. Euskal liburutegirik onenatarikoak dagoz iru konbentutan. Eta euskal eskola bereizi bat sortu dabe euren liburutegi ederron inguruan.

«Ezkila» izena daroa Belokeko euskal taldeak; eta Jaunaren «deia» Lazkano'koak. Izen orreetako aldizkariak argitaratzen dabez; goi maillako aldizkari jatorrak. Eta aldizkarietaz gainera, baita naiko liburu eder, liturgia ta teolojiari buruz, batez be.

Baloke'ko aita Lertxundi'k euskal kanta barri asko ta ederrak ditu Litutji ospakizunetarako. Bertoko abata Iratzeder'ek olerki bikaiñak egin; Orixer aundiren antzeko olerki jainkotiarrak egin be.

Lazkano'ko abata Mauro Elizondo'k asko ta ondo idatzi dau ainbat aldizkarritan. Bardin ere idatzi. Estibalitz'ko aita Bastarrika'k. Orixeri buruz egindako lan ederra da, arean, onen lanik ederrena.

Ona emen, azpimarratu, azpimarratu besterik ez, lekaide jator onen lanik beinena.

## OLARIZU

Alderdi-Egun zoragarri bat izan gendun Olarizu 'n.

*Bizitz guztian olako zirrada izten dauenetarikoa.*

*A zan notintza! A zan bakea! A barne-muin guztietatik erioen poza!*

*A rpegi danetan alaitasuna. Ez giñan ezagunak eta alkar laguntzeko prest gengoan.*

*Cure Erria itxartu da. Igaz be ori berbera ikusi genduan Aralar'en. Baiña aurtengoaz beste urrats bat, oinkada galant bat emon dau bere buru-jabetzaren bide arriskutsuan.*

*Ez dogu bidea larrosaz inguratua, bai, ordea, arerioz betea. Cure Erriak, ala ta be, bizi gura dauala adierazu dau.*

*Euzkadi guztiko Alderdikideak, Europa'tik, Argentina'tik, Venezuela'tik, eta Ipar-Ameriketatik etorrikoak...*

*Cure lagun katalandarrak. Madrid eta Barcelona'ko Uri-Buru-Batzarrekoak. Oroz 100.000' tik gora notin. 1.080 berebil aundi, 8.000 or nunbait txikiak, 20.000'ren bat oiñez Gazteik'tik eta... etorriak. Benetan ikusgarria, unkiagarria dan-dana.*

*Uts-bako erakunde ta antolaketak, 2000 ertzaiñen ardurapean. Eguraldi bikain-bikaiña. Goizean batez be eguzki-galdak nabaritu genduzan.*

*Beti biotz-gazte dogun gure Irujo senatore jaunari nire txapela itzi neutsan, eta berak pozik ipiñi be ordu ta erdi-inguruan.*

\* \*

### AJURIAGERRA'REN OROIPENA

*Danok geunkan gure asmoetan, te askok ezpenetan be bai, Ajuriagerra jaunaren (G. B.) gogorapen nabarmentsu bat.*

*Ille bat bakarrik il zala! Ze pozik ikusi al izango eban jai gogoangarri au gugaz izatekotan! Baiña nire lagun Cuerda aldunak bere gazteleraizko itzaldian esango eban lez, «Zerutik ikusten gaitu ta ango poza gure zentzunen gaiñetik dago».*

*Ez noa, ori ta be, biotzak eraginda, aritik urtetera. Gure aldun eta batzarkideentzak gertetu. riko ikustoki edo tribunan Irujo jaunaren jarlekutik zertxobait beerago Ajuriagerra joana zanaren arreba biak egozan.*

*Bein jria asita, Uri-Buru-Batzarren ingurumariko ibillaldia aurrera joiala, Lizarra'tarrak ikustoki pareparean gelditu ziran eta neska gazte batek Irujo jaunari lora-txorta polit bat eskiñi eutsan. Irujo'k eskerrak emon, zurezko mailla batzuk jatsi eta Ajuriagerra' ren arrebai lorak emon eutsezan txalorik beroenak artzen zituan artean.*

\* \* \*

### JATEN EGITARAUA

*Larregi luzatzeko bildur naz, zer garrantzitsuenak esatera noatzue, orregaitik.*

*Aurre-egunetik etxolak, edaritegi-txoznak eta abar gerturik egozan. zelai-landak miragarriak, lau-lauak. Erdikoa zugaitz gabeko lauki luzea.*

*Emendik entzun genduzan Cuerda, Arzalluz ta Garaikoetxea jaunen itzaldi sakon, pare-bakoak.*

*Aldamenean, ezkeraldean, zugaitzez beteriko toki abarotsuak, bazkaldu ta etzunda egoteko egoki-egokiak.*

*Dana jentez beteta. Ia toki aundituago baten premiñan.*

*Giza-taldea inguru guztietatik etorren, geienak egazkin zelaietatik.*

*Bidean, bizpairu km. luzaeran, landa-aurrean, euskal-liburu ta opiltxo saltzailleen erakustokiak. Ibillaldi alaitua.*

*Esateko baiño, obeto an egoteko ta parte artzeko gauzea zan.*

*Gero Meza Santua, nunnai ikurrin-zabaltzeak, erasgarri ipinteak eta abar... Ikurrin aundi bi zerurantz igon ziran, Puztukien artean.*

*A'ratsaldeko jaiaren asieran be bardin.*

*Goizeko zerrenda jarraituz, ondoren Uri-Buru-Batzarren biltze ta ibillaldiak eta gure aldunen itzaldi garbi, sakonak izan ziran.*

*Arzalluz eta Garaikoetxea jaunak euskeraz eta gas-teleraz itz egin eben.*

*Ordu bat eta erdietan bazkaria: Txoznetan bost milla kilo sardin, odolosteak, txistorrak, taloak, indaba gorriak, eta abar. Loterizia zala zirudian, danak illaran eta ukondo joka lenbaitlen zertxobait artzeko.*

*Gero aldia emoteko, landai ikuspegi oso bat emoteko, lagunakaz topo egiteko, gora-berako ibilteak eta garagar bonbiltxoan erosketak egaria kentzeko lilluraz. A zan edatea egu zki-izpien galdapean!*

*Dana, diñoen lez, amaitu zan, dana bukatu zan: Sardiñak, opillak, eta batez be edari ozkirriak.*

*Bitartean erromeri txiki asko an-or-emen, bertsolarien ekiñaldia eta, poliki-poliki, etxera joateko gogo.*

*Etixeratzean be ibillaldi luzea, baiña etorreran baiño danok batuago, estuago.*

*Ia Aralar'en antzekoa. Gero bazter guztiak boerebil aundiz baterik. A bai ibillaldi pare-bakoa!*

*Amaitzeko, ume bat jaio jakun, gizon bat biotz-barne miñez il. Azken au 74 urtekoa, zerutik, uste dogunez, gure aberri maitearen alde erregutzeko. Umetxoa, guk ikusten ez ba'dogu, berak bizitz-aldian gure Erriaren Buru. jabetasuna ikusi dagian.*

*Eta beste barik datorren urtera arte, Jauna lagun.*

ARREGUI'tar Josu'k



## TXAPELARI

(«Zara Neskatilla Euskalduna»'ren doiñuaz)

I

Zara!  
Lagun zintzo euskalduna zara!  
Ezta iñor gure errian  
Zure bear ez danik  
Ez gazte ta ez agura  
Txapel-zale ez danik *(bis)*  
Mutikoen txapela  
Ez da ustela!  
Alkar astinduteko  
Ta baloi ordezko!  
Txori-kumentzako da  
Kabia epela *(bis)*

II

Zara!  
Gorri, zuri edo eta baltza,  
Txiki edo zabala,  
Beti biribilla,  
Jantziten dituanak  
Amaikatxo milla! *(bis)*  
Euri ta eguzkirako  
Zaitugu ala-alako;  
Ganean jesarteko  
Ta belaunperako.  
Bear etzaranean  
Sakelan sartzeko! *(bis)*

III

Zara!  
Plazetara eroaten dana;  
Jantzan bira-biraka.  
Jaurti egiten dana,  
Ez da ez, gure jairik,  
Zuk alaitu barik *(bis)*.  
Kaska-motsa estaldu,  
burua epeldu,

EUSKEREA IKASTEKO, EMTIUH ETA ULERTU

XAVIER PEÑA'REN IRAKASPENAIJ  
ARRAITUZ.

KASETAK DAUKAGUZ SALGAI.

ESKATU

EUSKERAZALEAK ALKARTEARI.

(Colon de Larreategui, 14 - 2.º

izkillu obarik ez  
Euliak ilteko;  
Baita egoki guztiz,  
Txanponak biltzeko *(bis)*.

IV

Txapela!  
Ire bizitza ez dok motela!  
Agaitik euskaldunek  
Artu aue eurentzat  
ta gura izaten jock  
Izan txapelclunek *(bis)*.  
Bai aizala film!  
Barritan apaiña  
Ta azken-egunetan  
Dausku.k guri irakasten  
Bigunak izaten  
Gogor beti ekiten *(bis)*.

V

GORA!  
Eta aupa poz-pozik TXAPELA!  
Gaur baruko guztien  
Txapeldun daitela  
Auxe dogu eskatzen  
Kendurik txapela *(bis)*.

MAITENA'k

## KILI-KILI

UMEAK ABEDETZEAN EUSKALDUNAK  
EGITEN DABEN.

LAN EDER-EDERRA

EUSKERAZ UMEENTZAT 1.º ALDIZKARIA

M

LAGUNTZAILLEAK BEAR DITUGU:

- Marralariak
- Margolariak
- Eroaleak
- Zuzentzailleak
- Esku-langilleak
- ETA ABAR...

LAGUNDU EGIGULU, EZELAKO ASTIRIK BA DAUKAZU

Deitu: Kili-kili'ra, 6-16-60-49 edo  
Euskerazaleak'era: 4-23-53-22

BEAR-BEAR ZAITUGU. ZURE LAGUNTZA  
POZIK ARTUKO DOGU.

## Aditza ondo erabilten ikasi AAL ERA

Aditzaren garrantzi aundiko tza itzultzeko erabilli oi diran zati bat AAL ERA deritxona adizkiak osotzen dabe Era ori. cl. Gaztelerako «poder» adi- Adibidez:

- Yo **puedo** hacer este trabajo. Nik lan au egin **daiket**.  
 Tu **podrias** ir a Bilbao. I Bilbo'ra joan **einteke**.  
 Se me **puede** caer una piedra. Arriren bat jausi **dakidake**.  
 Roclremos hacer ahi una casa? Or etxerik egin ete **daikegu?**  
 (Edo: Or etxerik egin **aal izan-**  
**go** ete dogu?).  
 Se le **pudo** otorgar un premio. Sari bat emon **eitekion**. Eta abar. «La misma

### BITARIKO ADIZKIAK

Gaztelerazko «poder» aditza esaldiaren zati dalarik sortu oi

- diran esakunak, baiña, era bitara itzultzen ditugu euskerara. Onan-  
 txe:
- Ibilli **aal naz**. Puedo andar.  
 Ibilli **naiteke**. Puedo (podre) andar,  
 Ezin ibilli **naz..** No puedo andar.  
**Ezin ibilli naiteke**. No puedo (podre) andar.  
 —Eroan **aal dot**. Puedo llevarlo  
**Eroan daiket (dezaket)**. Puedo (podre) llevarlo.  
**Ezin ekarri dot**. No puedo traerlo.  
**Ezin ekarri daiket**. No puedo (podre) traerlo.  
**Ezin dok lorik egin?** ¿No puedes dormir?  
 —Ezin daikek (eike) lorik egin? ¿No puedes (podrás) clormir?  
 Eta abar.

Esaldiok esan-gura berekoak ete dira? **Ibilli aal naz** eta **ibilli naiteke** adizkiak, adibi-  
 dez, edo **ezin dot lorik egin** eta **ezin daiket lorik egin** esakunak adiera ber-bera ete dabe? Gauza bera adierazoten ete? Zein esaldi bata, zein bestea erabiltea bardin ete da? Itaunok badabe garrantzirik.

### AZKUE'REN ERITXIA

**fuerza tienen ezin etorri naz** «no puedo venir» que **ezin etorri naiteke, ezin etorri al naz y ezin etorri al naiteke**» (Morfologia, 766 or.).

«La imposibilidad en las ideas presentes ofrece hasta tres grados de expresión: **ezin jan det, ezin jan dezaket, ezin jan al dezaket**» «no puedo corner» (es imposible expresar la signifi-  
 cación neta del segundo y tercer grado) ». (Dice. Vasc.-Esp.-  
 Fran., **ezin** itza).

Ikusi daitekenez, **Azkue'**ren-  
 tzat bardin-bardin da ibilli **aal naz** eta **ibilli naiteke** esatea, edo **ezin jan dot** eta ezin jan daiket esatea. «Mis compañeros notan alguna diferencia que yo no percibo» diño berak (Morf. 766 or., oarre).

(jarraituko dau)

PUJANA'tar Pedro'k



# DROGAK EUSKALERRIAN

Danok dakigun zera da, egungo egunean in-guratu oi gaitun giroak, berein aurrerapen ba daukaz be, eta ez noa onetzaz idaztera, niretzat beintzat nabermenetarikoak eta gure gazte-cliarentzat batik bat galgarri ta kaltegarriagoak dirala jasan bear doguzan gizarte-gaitz batzuk, ontan kontuan artzen doguzala mozkorkeria, dro-gen zaletasuna ta abar luzetxo bat, tamalez.

Gaur, alan be, lo-bedar eta clrogatzaz jardungo dot soil-soillik.

Drogak geroago ta indartsuago joten dabe gure Euskal Lurra.

Orain urte batzuk dirala, gazteen artean baten bat edo baste ei ziran droga ta lo-gaillu onein artzailleak. Urte bitik ona, alan da be, 15 eta 16 urteko gaztetxuak be «hachis» eta bere antzeko lo-erazle bedarrak artzera zaletu ei dira.

Orretarako ikaste-etxeetan dauke eretirik onena\*

\* \*

## PORROAK

Bilbo'ko auzune batzutan 14'urteko mutikoak erretzen dabez egunero lau edo bost «porro» .

Porro izen au damotse «hachis» «marihu.ana» ta oneitariko bedarrakaz gertaturiko zigarrotxoei.

Euskal-Errian drogazaleen artean 100'clik 90 (% 90) «hachis» lo-bedarra artu daroe.

«Kanabis» deituriko landare batetik atara oi da eta Marruekos'en (ketama) ta Aprikako Iparralde-ko beste toki batzuetatik ekarten dabe, an ereiten cia. 01 le edo pastilletan saltzen dabe. Txokolate antxe-koa da margoz eta alik eta illunena izan ezkerro askoz be obea dala diño.e.

\* \* \*

## PORROEN GERTATZEA

Artzeko edo erretzeko oltxo edo porro opiltxoak pozka bat berotu egiten dabez; ondoren karrakatu. (raspau) eta gelditu oi dan autsa kebeclarraz edo ta-bakoagaz naastaturik, geienetan «rubio» gaz izan oi cia, zigarrotxoak «porroak» urten daroe.

Erreteko makal samarrak diranez, ingi, paperaz borobildurik izten dabez eta agoko ertzean, ingi gogorrago bat ipiñi.

Ze alde guk, koskortxoak giñanean, noizean bein erretzen genduzan artabizarrakaz!

Gurasook, adi te zur egin-bearra dozue, ziñez.

Damotzuedazan zertzelada oneik, artarako ba-karririk dira: Zuen seme-alaben oinkadak, urratsak, ardura biziaz ta eragite onurakorraz jarraitzeko am zuzen.

\* \* \*

## ORIOZKO «HACHIS»'a

Beste «hachis»-mueta bat be ezaguna dogu: Orioaz nastauriko «hachis»'a.

Azken au askozaz gogorragoa cla «hachis» arrunta baiño.

«Kanabis» landaretik ba dator be, ez da ain ezaguna Euskal-Errian.

Orratz txiki bat orio ontan sartu, eta bereala edozelango zigarro bati ezarri edo tan-tan batzukaz ikutu ezkerro, erretzailleentzat ondoren txarragoak clakarz porroak erabillita baiño.

Alan da be, oso garestia da eta ortik clatorko ain aipatua ez izatea.

\* \* \*

## «GRIFFA»-BEDARRA

Orain urte batzuk dirala, Bilbo'n, Donosti'n eta Gazteiz'en droga ez-ezaguna ei zan «griffa», bedar kilikagarria ta ernagarria egiz.

«Hachis» lobeclarrak, alan cla be, zearo lur jota itzi dau bera.

Ba dagoz beste mota batzuk be, garrantzi gi-txiagokoak, Euskal-lurraldeetan. Dan-danak orle-giak dira margoz eta orlegi margo au alik eta biziena izan ezkerro, drogearen garrantziase goragokoa cla.

\* \* \*

## SALNEURRIA

Marruekos'en «hachis» lobeclarrak 150 pezeta aneikia, kiloa, or nunbait balio dau. Bilbo'n sarritan 300.000 lauerlekotan kiloa saldu oi da.

Arrigarria benetan aldakuntza au! Goazen bere urratsak jarraitzera.

Ceuta'n eta Melilla'n «hachis» aneiki baten sal-neurria 1.000 pezeta da. Algeciras'en 75.000 pezeta eta Bilbo'n 150.000 pezetatik 450.000 pezetara.

\* \* \*

## JARRAILLE BARRIAK

Txarrena baiña, drogen zaletasuna artu ezkerro, benetan gatxa ei da norberagandik griña txar ori jaurtitzea.

Orrez gaiñ, clrogazaleak lagun barriak billa-katzen dabez eta orrelan zaletasun onek oriozko kutsu ta orbanen antzera, ingurumari guztiak zikin-tzen ditu eta amaikatxo errukarri aurkituko dira in-dargabe, makalaldi ta erortze ontatik urteteko.

Gaia ugaria cla jarraitzeko, ori ta be gaurkoz amaitzen noa.

Begiratu gurasook gaur eguneko Egipto'ko izurri au. Ia izurrita onek zuen seme-alabakaz zer-ikusirik eta daukon. Zelako lagunakaz eta nora doazan, non sartzen diran eta abar...

Aldiz eta sustraitik gaitza ebagi-tierra dozue; zuen seme-alabak eta gizarte or•oaren. onerako.

**ARREGI'tar Josu'k**

## BERBIZKUNDEAREN LORATEGIAK

### DOMU-SANTU

Zemendiaren lenengo egunean ospatzen dogu, Euskalerrian beintzat, Domu Santu eta biaramonean, il diran guztien eguna.

Illak ez daukue ekarten buru-austerik. Ori esaten dabe, baiña nik ez dot uste ori egia danik.

Batzuk urrutira eroan gura dabez, beste askok euren ondoan euki. Eta gorpuak erreteari buruz, zein eretxi izan bear dogu?

Sentipen gogor, latz eta ikaragarria izango jaku geienentzat, nire ustez. Nik neuk beintzat ez neuke gura nire aita edo ama edo nire senideak su artean auts biurtzen ikustarik, ikarea emongo leuskit egite orrek.

### SAKONTASUNA

Orduan, gaur daukaguzan lako iltegiak?

Ez jataz atsegin, ez dodaz onartzen: Arrinabarrak, atxurdiñak, urrezko idazpuruak, borontzea, burdin bellegiak, urregorritzko goi-barrenak... Danak aundikeria iragarten! Ori dala ta, guztiok norgeiagoka!



Ez ta, gaurko tankeraz, ormetako obiak, millaka zuloak, bakoitxean illaren jakingarriak dirala.

Illerriak gizonari bere izakerea obeto ta argiago agertzen lagundu bear dautsoe. Eta gure illerriak ez dabe orretarako laguntzen. Urre gorriaz arrokeria adierazten dabe eta apainduri larregiaz, aundikeria. Eta an sakontasunez egia ausnartzeko giroa baketsua bear da, gozotasuna ta gogapena batera bear dira.

### LORATEGIAK

Kolonbia'ko Bogota uriburuan eta Kali ango uri aundi baten, eginbarriak dira olako illerriak. Oroimenlorategiak esaten dautsee. (Jardines del Recuerdo).

Arri-illobiak lurraren barruan dagoz euren gainea askotariko loraz inguratuta. Sendi bakoitxa joan lei-



teke ara bere illen gomutapena barriztatzera eta otoitz egitera, eta illobiak apaintzeko zugatz txiki edo lora usaintsuak eroan.

Zergaitik ez gara asiko Euskalerrian olako zerbait egiten? Batez be erri txikietan illerri txikiak dagozen lekuetan? Eta kristidauen fedea agertzeko, illeriko atean olako zerbait idatzi: *Berbizkundearen lorategia.*

### OROZKO'KO MURUETA'N

Oritxe egiteko asmoa daukagu Orozkoiko Muruetain, parrokoiko illerrian.

Malzarraga'tar Benigno. ZER onetan agertu zan udalkidea. Euzkadi'ren alde ildakoaren anaia, maixua, il da Bilbo'n. Eta bere emazte ta alabak, Bilbon bizi dira baiña, aren amaren errira eroan dabe illobiratze-ko, Murueta'ko kanposantura. Illerria itxura txarrean ikusi dabe eta garbitu ta atxurtu ta loraz apaindutea ebatzi dabe. Gero aitaren illobia lurrean ezarri dabe, osabearenaren ondoan. Atea be barriztu ta margotu dabe eta antxe ipiñi gura dabe izki ederrez *Berbizkundearen lorategia* idazkia.

### GOMUTAGARRIA

Udan ara joaten dan jente Bilbojtarrak, andik igaroten diranean, euren elburua gogoratuko dabe eta ango lorategi ederrak, txikiak, beti iraungo dauan aberriaren gurariak gomutaratuko dautsez.

Zugatz eta lora-arteko ixiltasunean, gizona Jainkozaleago egiten da.

Ea ba, erri-auzoko guztiak adoretuten diran, guztien artean, Ezkadiiko lenengo Berbizkunde-Lorategia izango dana egiteko !

# EUSKERAZALEAK

Euskerea ikasteko gogoia biztu da aspaldion erdeldunen artean eta oso gauza pozgarria da ori.

Baiña zelan ikasi.

Ez da gauza erreza. Izkuntza bat, edozein, ondo ikastea, oso gatxa da, baiña lortzen da eta askok lortu dau.

Izkuntzak irakasten diarduenak, umeak daukan bidea dala onena esaten dabe.

Zein da bide ori?

Lenengo entzun eta asko entzun. Umeak illeak egiten ditu entzuten berba bat be esan barik.

Orixe da lenengo egin bear dana: Euskeraz berba egiten dabenai entzun eta asko entzun.

Bigarren oinkadea, entzuna ulertzea da eta orretarako be ainbat illebate bear dira.

Askio itandu, barriro esan erazo, entzuten dan guztia (etxean, errian, irratian, abestietan...) ulertu, ezer be ez itzi ulertu barik.

Eta irugarrenez, berba egin, eta berba egin norberaren barruan lenengo. Erderaz bere pentsamentuak egiten dituanak ez dau inoz euskeraz, ondo egingo. Euskerea ikasteko, euskeraz pentsetan alegiña egin bear da: Esaldiak egin, sarritan esan, norberak entzuteko eran esan, entzuten dana sarritan esan...

Alkar-izketak, asikeran errezenak, sarritan egin, geroago ta geiago euskerea erabili.

Ori lortzen danean, geiena eginda dago, baiña izkuntza bat ikastea ez da inoz be amaitzen, beti geratzen da zer-ikasi, batez be txikitako berbetea ez danean.

Gero libuluetara jo bear da eta emen be iru mailla: irakurri, irakurria ulertu eta idatzi. Izkuntza idatzia agoztua baiño errezagoa da, baiño lenengo agozkoa ikasi bear da beti.

A! Eta bearren dan gauzea: eroapen, pazientzi aundia. Itzi illeai ta urteai doazela eta beti ekin eta ekin.

## ZER DA

*Kilikagarria?* Gizona biziago jartzen dauan zer-bait.

—*Aneikia?* Kiloa.

*Izurria?* Gizonen artean errez zabaltzen dan gaisoa.

—*Unkigarria?* Barruko aragiña sortzen dauan zer-bait.

—*Galdak?* Beroak.

—*Nabaritu?* Agertu, azaleratu, asmagarri biurtu.

—*Opilla?* Urunaz, oreaz egiten dan janaria.

—*Erasgarria?* Erantsita edo bat eginda egon leiteken zer-bait. (Pegatina).

*Puztukia?* Aizez bete ezkeror goratzen dan azal utsa.

*Txistorrak?* Lukainkak eta este betetuak diran janariak.

*Zirrada?* Barruko asmapen bizia.

*Listorra?* Kuribioa, basa-eztia egiten dauan basarle aundia.

—*Mamultza?* Kalte ta izeka egiten dauan gizona.

*Erronkea?* Arrokeriz eta zarataz beteriko esaldiak.

*Otu?* Bururatu.

*Zintzurtakoa?* Samea ebagi eutsena.

—*Padarra?* Baseleizan bakarrik bizi dan lekaidea.

—*A rrapillatu?* Ondasunak eta balioko gauzak ostu.

# ZER

Colón de Larreátegui, 14 - 2.º dcha. BILBAO-1

***Olako eginbearrak artzera,  
oitu zaitte.  
Urte bi igaro baiño len,  
lau laguntza barri.***

Gauzetarako ikuspegi barria, artu-emonak izateko era barria eta geroak gaur eskatzen dauan laguntza-moltzo osotua-  
goa eskintzea aitatzen dogunean, geuk daukaguzan  
aurrerapen gurariai egitezko erantzuna emoteko baiet-  
za agertzen gagoz.

Esaterako, dana gertu daukagu eperako dirua ezar-  
teko libretak izan daitezcan.

Laguntza barria da ori eta laster emongo dogu-  
zan laguntza askoren artean, lenengoa.

Gure laguntzak zabaltze ta aldatze au, Biz-  
kai'ko Aurrezki-Kutzak guztiontzat etorki-  
zun ederrago bat egitea gura dauala  
adiazoteko bidea izango da.

Etorkizuna, geroa, gaur asi bear do-  
gu.

Biar emen izango da.



**BIZKAI'KO  
AURREZKI KUTXA**

*Geroa, bertan daukagu.*

